

2018an, Euskal AEko hezkuntzako gastua %2,4 hazi zen, 3.900 milioitik gora

Gutizko gastua %76,7koa da finantzaketa publikoan eta %23,3koa pribatuan

Euskal AEko hezkuntzako gutizko gastua %2,4 hazi zen 2018an, aurreko urtearekin alderatuta, Eustatek egindako datuen arabera. Biztanle bakoitzeko, hezkuntzako gastua 1.808 eurokoa izan zen 2018an, aurreko urtean baino %2,1 gehiago. 3.949 milioiko gastua 2018ko BPGren %5,1 izan zen, 2017an baino hamarren bat gutxiago.

Hezkuntzaren Kontuak jasotzen ditu hezkuntza-erakundeetan nahiz beste edozein ikastetxe edo enpresa motatan egin diren eta iturri publiko edo pribatuek finantzatu dituzten hezkuntza-jarduera arautu zein arautu gabeetan egindako gastu arrunta eta kapital-gastua.

Hezkuntza-gastua guztira eta adierazleak Euskal AEn. 2016-2018 (A)

	2016	2017	2018(A)	Aldakuntza-tasa 2017/2016 (%)	Aldakuntza-tasa 2018/2017 (%)
IRAKASKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA (milaka €)	3.784.637	3.858.346	3.949.428	1,9	2,4
- GUZTIZKO GASTU ARRUNTA	3.670.885	3.730.457	3.806.409	1,6	2,0
- KAPITAL ERAKETA GORDINA	113.752	127.889	143.019	12,4	11,8
Hezkuntzako gastua biztanleko (eurotan)	1.741	1.771	1.808	1,7	2,1
Hezkuntzako gastua BPGaren % gisa	5,3	5,2	5,1	-0,08	-0,09 (*)

(*) puntu porzentualak

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

Hezkuntzako gastu osotik, 3.949 milioi euro, 3.806 milioi gastu arruntari dagozkio (%96,4) eta 143 milioi inbertsioko gastuari (%3,6). 2017ko datuekin alderatuta, gastu arruntak %2,0 egin du gora, eta inbertsioak, berriz, %11,8.

2017ko datuen analisiak adierazten digu –urte horretarako datu bereiziagoak dauzkagu– ezen hezkuntzako gastu osoaren %76,7 finantzaketa publikotik datorrela, eta pribatutik %23,3. **Funtzioen** arabera, Hezkuntza-zerbitzuetaiko gastuan dago finantzaketa publikoaren ehunekorik handiena: %83,2; finantzaketa pribatua, berriz, %16,8.

Finantzaketa zuzenaren iturria. 2017 (%)

	FINANTZAKETA PUBLIKOA	FINANTZAKETA PRIBATUA
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	76,7	23,3
GASTU ARRUNTA	76,8	23,2
Irakaskuntza-zerbitzuak	83,2	16,8
Beste jarduerak eta ondareak	43,5	56,5
KAPITAL GASTUA	74,1	25,9


Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

Finantzaketa-egitura hori egonkor mantendu da azken urteotan, eta finantzaketa publikoa hezkuntzan egindako gastu osoaren hiru laurdenak baino gehiago izan da ekitaldi guztietan.

Hezkuntza-gastu osoa finantzaketa zuzenaren iturria.

Euskal AEn. (%)

2018 Aurrerapen Data



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

Sailkapen funtzionalari erreparatuta, Hezkuntza eta Prestakuntza Zerbitzuak gastu osoaren %81,1 izan ziren, eta Jarduera Osagarriak (garraioa, jantokia, egoitza...), berriz, %6,7 (258 milioi). Jarduera osagarrietako gastu hori %2 inguru murriztu da urtero 2015. urteaz geroztik, batez ere jantokiko gastuaren ondorioz; izan ere, 2015ean 182 milioi gastatu ziren, eta 2017an, berriz, 166 milioi. Gastu arrunta osatzeko, Etxeek, Hezkuntza Sistemaren Administrazio Orokorra eta Hezkuntza Ikerketa eta Berrikuntzak erositako liburuen, eskola-materialaren eta beste ondasun batzuen partidak erabili dira, %3,7, %1,0 eta %4,2, hurrenez hurren. Kapitalaren eraketa gordina guztizkoaren %3,3 izan zen, eta 14 milioi handitu zen 2016arekin alderatuta.

Hezkuntza-gastua guztira Euskal AEn, funtzioen arabera. 2015-2017


	2015		2016		2017	
	milaka euro	%	milaka euro	%	milaka euro	%
HEZKUNTZAKO GUZTIZKO GASTUA	3.731.014	100,0	3.784.637	100,0	3.858.346	100,0
GASTU ARRUNTA	3.595.609	96,4	3.670.885	97,0	3.730.457	96,7
Hezkuntza eta prestakuntza zerbitzuak	2.995.001	80,3	3.072.635	81,2	3.128.160	81,1
Garraioak	43.329	1,2	46.575	1,2	43.157	1,1
Jantokia	182.220	4,9	169.133	4,5	165.970	4,3
Beste jarduera osagarri batzuk	43.657	1,2	46.409	1,2	48.677	1,3
Liburuak, eskolako materiala eta etxegoneek erositako beste ondare batzuk	131.934	3,5	140.769	3,7	142.659	3,7
Irakaskuntza Sistemaren Administrazio Orokorra	38.741	1,0	39.533	1,0	39.599	1,0
Irakaskuntzako ikerketa eta berrikuntza	160.727	4,3	155.831	4,1	162.235	4,2
KAPITAL-ERAKETA GORDINA	135.405	3,6	113.752	3,0	127.889	3,3

Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua

Nazioarteko konparazioari dagokionez, ELGAk argitaratutako azken datuak aztertzen dira, 2016koak. Urte horretan, Euskal AEn, Erosteke Ahalmenaren Parekotasunean (\$) neurtutako ikasle bakoitzeko gastuaren guztizkoa hezkuntza-erakundeetan 12.333koa izan zen, lehen hezkuntzatik hirugarren hezkuntzarako etapak batuta. Horrek Espainiaren

(9.464), ELGAko batezbestekoaren (10.502), EB23 batezbestekoaren (10.688) eta Frantzia (11.364) bezalako herrialdeen gainetik jarri zuen. Aldiz, Alemania (12.583) eta Suedia (13.693) bezalakoak azpitik. Hezkuntza-etapak kontuan hartuta, Euskal AEn ikasle bakoitzeko gastua 11.439 (\$) EAP izan zen lehen, bigarren eta bigarrenaren ondoko hezkuntzan, eta hirugarren hezkuntzako ikasle bakoitzeko gastua 15.753 (\$) EAP izan zen; bietan Espainiako eta ELGAko batezbestekoak baino handiagoa izan zen, eta, hirugarren hezkuntzaren kasuan, ELGAn aztertzen diren Europar Batasuneko 23 herrialdeetako (EB23) batezbestekoa baino pixka bat txikiagoa, 15.863 (\$) EAP.

Ikasleko urteko gastua hezkuntza instituzioetan (\$) EAPn. 2016



Iturria: Eustat. Hezkuntzaren kontua eta ELGA. Education at a Glance. 2019 (Adierazlea C1.2)

OHARRA: Edizio honetan aurreko sail osoa (2012. urtea eta aurrekoak) berrikusi eta eguneratu da, 2011ko azken Hezkuntzaren Sailkapen Normalizatuaren (HNSN) eta Hezkuntzaren Kontuen metodologiaren arabera: [Methodology of national education accounts 2016](#)

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62